

PRODUKTUEN BERMEAK



● Produktu guztiek, **derrigorrez**, 2 urteko **legezko bermea dute**. Bigarren eskuko ondasunentzat berme-aldi laburragoa ezar daiteke, baina behin ere ez urtebetetik beherakoa.

● Legezko bermea izateko, ez da dokumentu berezirik behar; nahikoa da **jatorrizko faktura edo erosketa-tiketarekin**. Aldiz, berme komertziala idatziz edo euskarri iraunkor bat erabiliz formalizatu behar da. Saltzaileak edo fabrikatzaileak legezko berme arruntaz gain eman dezakeen berme osagarria da berme komertziala.



● Adostasunik ez dagoenean, **ondasuna konpontzearen edo aldatzearen** artean aukera dezake erosleak, bi aukera horietako bat ezinezkoa edo neurrigabea denean izan ezik. Konponketak **doakoa** izan behar du, eta arrazoizko denboran egin behar da.

● Konponketa guztiek produktua entregatzen denetik 3 hilabeteko bermea dute gutxienez. Egindako konponketari bakarrik eragiten dio bermeak, eta **gastu guztiak hartzen ditu barruan** (eskulana, joan-etorriak, ordezeko piezak eta abar). Produktua konpontzen ari diren bitartean, berme-aldiaren kontaketa etenda geratzen da.

LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK (LTZ)



● **Markaren LTZ ofizialetara** jo behar duzu.

● Sorpresarik egon ez dadin, erabil ezazu **idatzizko aurrekontua** eskatzeko daukazu eskubidea. Egiten dizuten aurrekontua ez baduzu onartzen, hura egitearen zenbatekoa kobra diezazukete.

● Gailua konpontzen uzten duzunean, horren **frogagiria** emango dizu LTZk, eta frogagiri hori aurkeztu behar duzu gailua jasotzera zoazenean. LTZk eta erabiltzaileak sinatutako aurrekonturik egonez gero, horrek balioko du gailua konpontzen utzi izanaren frogagiri bezala.

● Aurrekontua onartu ondoren, aurrekontuan sartu gabeko matxuraren bat aurkituz gero, zure **adostasuna eman** beharko duzu matxura hori ere konpontzeko.

● **Matxura bera konpontzera** behin baino gehiagotan joan behar badute zure etxera, joanaldi bakarra kobra diezazukete.

● Modelo jakin bat fabrikatzeari uzten zaionetik gutxienez 5 urtez eduki behar ditu **ordezko piezak** LTZk (estetika-piezen kasuan, 2 urtez). Ordezko piezak berriak izango dira, eta, pieza erabiliak jartzeko, idatziz eman beharko duzu zure adostasuna. Pieza erabiliak egoera ezin hobean egongo dira, eta prezio merkeagoa izango dute.

● **Fakturaren** zenbatekoak eta kontzeptuak bat etorri behar dute aurrekontuarekin.

● Konponketa guztiek **gutxienez** 3 hilabeteko **bermea** dute. Faktura gorde; bermeak balioa izateko eta edozein erreklamazio egiteko beharko duzu.

